



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

ARABAKO ERRIOXAKO ETA ARABAKO TXAKOLINEKO 2021-2022ko MAHASTIZAINZA KANPAINAREN AZKEN TXOSTENA.

ARABAKO ERRIOXA

2021eko azaroaren hasieratik izandako euriteak —hasiera batean beroarekin eta gero ohikoak baino baxuagoak ziren tenperaturekin, eta elurra 500 metrotik hurbil dauden kotetan— azken finean zorionekoak izan ziren, ur erreserbak pilatzea ahalbidetu baitzuten kolore aldaketaren erdialdera arte beroegia eta lehorregia izan zen kanpaina batean.

Abendua oso beroa izan zen, eta euri askoko aldiarekin jarraitu zen Arabako mahastien inguru osoan. Eguneko tenperatu altuen joera mantendu egin zen 2022ko urtarrileko lehenengo egunetan zehar; hala ere, gauez, izozteak ohikoak izan ziren. Hileko lehenengo hamar egunetan, biraketa drastiko bat gertatu zen 2021eko azarotik ematen ari ziren euriteen erregimenari dagokionez. Urtarrilean, euria urteko lehenengo egunetan bakarrik egin zuen; hori dela eta, hilabete horretako balantzea, normalean euritsua izan ohi dena, azken 30 urteotako lehorrena bezala erregistratuta gelditu zen.

Urtarrileko joerari jarraikiz, otsaila serie klimatologikoko lehorrenetako bat bilakatu zen. Otsail osoan zehar, ia ez zuen euririk egin Arabako Errioxan. Tenperaturak egunean zehar leun mantendu ziren, hilabete horretarako ohikoa zena baino % 25etik gorako intsolazioarekin. Gaueko izozteak ere mantendu egin ziren.

Martxoa azkenean euritsua izan zen, baina Arabako Errioxan erori ziren m²-ko 30 litroak ez ziren nahikoak izan neguan metatutako defizita konpentsatzeko. bakoitz Edonola ere, mahastiak eskertu zituen euri eskas horiek. Neguko azken hilabete honetan, egun hotzak beroekin txandakatu ziren. Azkenean, negu meteorologikoaren balantzea honela definitu daiteke: egun beroak, gau izoztu askorekin eta normalean baino euri gutxiagorekin.

Udaberria euri askorekin hasi zen, eta elurra eta guzti egin zuen apirileko lehenengo egunetan. Neguan erregistratu ez ziren tenperatura balioak udaberrian erregistratu ziren, eta barietate goiztiarrenak jadanik zuntza galtzen hasi ziren. Termometroek -3°C eta guzti markatu zuten apiril hasieran, eta elurra ikusi zen 700 metrotik gorako altitudetan. Hotz horiek ez zieten eragin Arabako Errioxako mahastiei, neguko geldialditik irteten ari zirelako oraindik.

Apirileko hotzaren lehenengo aldiaren ostean, ohiz kanpoko beroak egin zituen 10 egunez, neguko egunak izango balira bezala. Horren ondorioz, mahastia “mugitzen” hasi zen. Aste Santuaren ostean (apirilaren 19a) tenperaturak gogor jaitsi ziren, baina ez ziren erregistro arriskutsuetara iritsi. Aste Santutik apirilaren amaierara arte, euri asko egin zuen, aldi horretarako tenperatura baxuekin. Apirileko lehenengo izozteak eta hil amaierako tenperatura baxuak kimu berrien garapena moteldu zuten; hori dela eta,

maiatza hasieran, mahastiak 15 eguneko atzerapena zeraman. Aurreikuspenak une horretan onak ziren lurra ur asko zuelako eta izozteek ia ez zutelako kalterik eragin.

Maiatzaren erdialdean, tenperaturak ohiz kanpoko maila altuetara iritsi ziren, eta horren ondorioz, laborantzak zeraman atzerapena laster neutralizatu zen. Kimuak kentzeko lanean ekaitz isolatuak gertatu ziren, euriekin. Luku asko zeuden mahatsondo hostoen oinarrian eta eremu apikalean kopuruak aldakorrak ziren. Gure ustez, landarearen fisiologia eta fruituaren banaketa panpanoetan zehar aldatu zituen hazkunde izugarriarengatik gertatu zen hori.

Maiatzeko zati handi batean egindako beroak eta gero, 23tik aurrera, tenperaturak zeharo jaitsi ziren, udaberrian ohikoak diren batez bestekotik beherako erregistroekin. Tenperaturak berreskuratu egin ziren poliki-poliki eta hilaren amaieran garai horretarako ohikoak ziren erregistroak lortu ziren.

Maiatzeko azken egunetan mildiu orban batzuk agertu ziren, baina isolatuak zirenez eta ez zirenez eman horiek hedatzeko baldintzak, ez ziren arriskutsuak izan mahastiaren osasunerako, baina egoera horren ondorioz arreta muturreraino eraman behar izan zen eta tratamendu antikriptogramikoak egin behar izan ziren. Bestela, osasun egoera ona zen.

Maiatzeko balantze orokor beroarekin, mahastia garaiz loratu zen, eta ekainaren hasieran fruituen hartzea gertatu zen; ohi baino astebete lehenago gutxienez. Ekainaren erdialdean beste bero bolada bat erregistratu zen, garai hartarako tenperatura errekorrekin, egun batzuetan 40°C-tik gorako maximoekin. Hil bukaeran, beroa baretu egin zen eta egun oso freskoak egon ziren. Tenperaturen muturreko baldintza horiek eta uraren defizitak — maiatzaren hasieratik hedatzen ari zena—, estres nabarmena eragin zioten mahastiari, baina horrek ez zuen eragotzi bai fruituak behar bezala hartzea. Ekainaren erdialdean, mahasti gehienek fruituak zituzten lukuetan. Fruituen hartzea ia 15 eguneko aurrerapenarekin iritsi zen normaltzat jotzen den urte batekin alderatuta. Hori bai, ia ez zuenez euririk egin, eta horren ondorioz gaixotasun kriptogamikoek ez zuten eraginik izan, mahastiak osasun egoera oso onean mantendu ziren.

Uztaila hotz hasi zen, ekaitz mehatxuarekin, baina urik gabe. Hil horren hasieran, Tempranillo luku batzuk kolore aldaketarekin hasi ziren, hau da, fenologia oso aurreratua izan zen. Baina laster beroa itzuli zen. Uztailaren 10etik aurrera, udako bigarren olatuan murgildu ginen, tenperatura errekorrekin, gauez zein egunez, eta mahastiak estres handia jasan zuen berriro, eta zikloa gelditu egin zen, eta 15 egunetan ia ez zen eboluzionatu. Une hartan, mahastiaren egoera lehorrean kezagarria zen, eta ez genekien zer bilakaera izango zuen udako muturreko bero lehorren aurrean. Gracianoa bezalako barietate sentikorragoetan eguzkiak erretako ale asko ikus zitezkeen.

Udako bigarren bero bolada gainditu ostean eta itxuraz goizegi ihartutako mahasti batekin, uztailako azken egunetako tenperaturak garai hartako ohiko tenperaturetara egokitzen ziren gehiago, batez ere gauekoak; eta horrek arnasaldia eman zion mahastiari. Mahastiak normaltasun apur batekin jarraitu zuen bere zikloa, ohiko fenologiarekin bat etorritik eta osasuna bere horretan mantenduz.

Abuztuan beroak itzuli ziren berriro, baina mahastiak, kolore aldaketa bete-betean, hobeto jasaten zituen tenperatura altuak, zeinak mantendu egin baitziren abuztu osoan zehar. Abuztuaren 3tik aurrera, ezegonkortasun atmosferikoaren ondorioz ekaitzak agertu ziren eta euria egin zuen modu irregularrean eskualdeko leku desberdinetan. Azken batean,

eurite sakabanatu horien garrantzia ikusiko zen, izan ere, gehienak txikiak izan ziren eta apenas busti zuten lurraren azalera.

Abuztuaren erdialdean, Arabako Errioxan bi egoera oso desberdin hauteman ziren mahastietan: ureztatuak izan zirenak eta ureztatu ezinik geratu zirenak. Lehorreko mahasti gehienak kolore aldaketa bete-betean zeuden, irregulartasunak zeuden bilakaerari dagokionez lekuaren arabera, eta baiak indar gutxi eta tamaina txikia zuen. Arrituta bageunden ere mahastiak lehorte baldintzen aurrean azaldu zuen erresistentziarekin, errendimenduari eta kalitateari buruzko zalantza asko zeuden. Bien bitartean, ureztatutako mahastiak egoera askoz hobea zuen, egutegi fenologiko aurreratuago eta erregularragoa zuen, mahats bilketa irailaren hasieran hasteko aurreikuspena zegoen eta lehorreko lursailetan errendimenduari eta kalitateari dagokionez ez zegoen ziurgabetasunik. Mahastiak, lehorrekoak zein ureztatuak, osasun egoera oso onean zeuden.

Abuztuaren bigarren erdialdean, depresio askatu subtropikal bat igaro zen eta Arabako Errioxan euriak utzi zituen modu irregularrean, eta tenperaturak jaitsi zituen. Egunak laburragoak zirenez, euri gutxi egin zuenez eta tenperaturak jaitsi egin zirenez, mahastiek arnasa hartu ahal izan zuten eta, horren ondorioz, mahastien masa begetatiboa mantendu egin zen, ez ziren ihartu eta hosto basalak ez ziren goizegi erori, ezta lehorrekoetan ere.

Egoera meteorologiko horrekin, mahatsa, abuztuaren amaieran, bere heltze prozesua amaitzear zegoen, eremu altuenetan izan ezik; azken horietan, prozesua atzeratuta baitzegoen. Osasuna bikain mantentzen zen, baina heltze indizeen arabera, bereziki maliko baxua, eta aleak urritzearen ondorioz uzta murrizteko arriskuaren arabera, eskualdea berehala mahats bilketarekin hasteko prestatzen ari zen.

Mahatsen lehen atoiak irailaren hasieran sartu ziren Arabako Errioxan, barietate zuri goiztiarrenetatik hasita (tempranillo zuria eta kanpokoak). Berehala, irailaren 10ean, tempranilloaren mahats bilketa hasi zen lursail eta eremurik goiztiarrenetan.

Irailaren erdialdean, mahats bilketa hasi ondoren, abuztuko euriteen eraginak, gaueko tenperaturen jaitsierak, ia eremu guztietan gertaturiko noizbehinkako zaparradek, mahatsaren baldintza begetatibo onak eta mahatsaren osasun bikainak (botritisaren arrastorik gabe), egoera lasaitu zuten eta bilketa moteldu zuten, eta horrek modu lasaiago eta selektiboagoan jarraitu zuen, eta, upeltegietan mahatsa sartzeari dagokionez, intentsitaterik handiena irailaren bigarren hamarralditik aurrera lortu zuen. Hilabetea aurrera joan ahala, mahatsak parametro fenolikoak perfektionatzen zituela ikusi zen eta atoiak geroz eta pisutsuagoak ziren. Honela igaro zen 2022ko mahats uztaren hasierako ziurgabetasunetik optimismora: abuztuko eta iraileko zaparradak zorionekoak izan ziren.

Mahats bilketa bere puntu gorenera iritsi zen irailaren 22an, 5 milioi kilogramo baino gehiago mahats bildu ziren eta indartsu jarraitu zuen "Pilare" eguna baino astebate lehenagora arte. Atoirik atzeratuenak eremu altuenetakoak izan ziren, baina baita Arabako Errioxako gainerako eremuetako lursailetakoak ere; azken horietan, ardogileek fenol heldutasuna azkartzea erabaki zuten.

Laburbilduz, beroak eta lehorteak eragindako zalantza askoren ondoren, gogoratzen diren kanpainen antzik ez duen kanpaina batean, kopuruari dagokionez, uzta askoz hobea izan da, amaitu baino pixka bat lehenagora arte espero zena baino. Orain arteko datuen arabera, Arabako Errioxarako uzta bolumen moderatua aurreikusten da, baina aurreko kanpainakoa baino handiagoa. Kalitateari dagokionez, aurreikuspenak ere onak dira, mahatsetatik fruta gustuko ardo gazte freskoa lortuko da, gordetzeko ahalmen handia

izango duena. Hala ere, badakigu, kanpaina honetan, beste kanpaina batzuekin alderatuta, muztioek eta ardoek lan enologiko handiagoa egin beharko dutela upeltegian, denboran zehar sendotzeko.

ARABAKO TXAKOLINA

Aiaraldean, Arabako Errioxan bezalaxe, 2021eko azaroa oso hezea izan zen, eta, horri esker, ur erresebak pilatu ahal izan ziren kanpaina baterako, 2021-2022koa; kanpaina hori ere oso beroa eta lehorra izan zen azkenean.

Abenduan tenperaturak nabarmen igo ziren, baina zorionez euriak urtea amaitu arte jarraitu zuen. Urtarrilean, eguneko tenperaturak altu mantendu ziren eta gauean izotza egin zuen. Prezipitazioak 2022ko lehen egunetan bakarrik eman ziren eta, txakolinari dagokionez, urtarrila ere oso hilabete lehor gisa amaitu zen.

Otsailean, goizetan izozteekin jarraitu genuen, egun oskarbiekin eta hainbeste itxaroten genuen euririk gabe (martxora arte ez zen euria iritsi). Nolanahi ere, martxoko prezipitazioek ez zuten zuzendu neguan pilatutako ur defizita. Celia depresioa, hauts eta lokatz lainoarekin, Arabako iparraldera ere iritsi zen. Azkenean, Arabako txakolinaren zonaldeko neguaren balantzea honela katalogatu daiteke: egun lehorrak eta beroak, eta gauean izozte ugari.

Udaberri hasieran, euria eta tenperatura baxuak izan ziren, eta elurra berandu egin zuen, 300 metroko kotetaraino. Apirilean, Aiaraldean ere jaitsi egin ziren gaueko tenperaturak, maila arriskutsuetara; baina, kasu honetan, erretzea Errioxan baino lehenago gertatu zen, hotzak eragindako kalteak nabarmenagoak izan ziren, eta mahastirik arriskugarrienen uza potentziala murriztu zen; Riesling, Chardonnay eta Hondarrabi zuri izan ziren barietate kaltetuenak, hurrenkera horretan. Ondarribi beltzak ez zituen hainbeste kalte jasan.

Apirilean zehar, aldizka hotza eta beroa egin zuen, garai horretarako ohiz kanpokoak ziren tenperatura altuekin, eta euri ugari egin zuen hilabetearen amaieran, baina ez zen nahikoa izan mahastia bere letargiatik esnatzeko. Hain zuzen ere, mahastiek erretzea atzeratuta hasi zuten maiatza. Maiatzaren erdialdean, ezohiko beroak mahastia aktibatu zuen, eta horren ostean, garai hartan ohikoa ez zen hotza egin zuen eta maiatzaren amaieran, udaberrikoak izan ohi diren erregistro termikoak erregistratu ziren. Hilaren amaieran, mahastia bere ohiko egutegian zegoen, eta mildiu orbanen bat izan ezik, Arabako Txakolinaren mahastiak osasun egoera oso onean zeuden.

Ekainaren hasieran, Aiaraldeko mahasti gehienak loraldi betean ikus zitezkeen; mahasti batzuek dagoeneko amaitu zuten fruituen hartzea, eta osasun egoera bikaina zuten. Une hartan, mahastietan, oro har, neguko ur eskasia sumatzen hasia zen.

Ekainaren erdialdeko bero bolada txakolinaren eremura ere iritsi zen. Ekainean ekaitzak izan ziren, eta horrek zertxobait arindu zuen maiatzetik zetorren lehorrea, eta mahastiak aurrera egiten jarraitu zuen. Hala, ekainaren amaieran, eremu horretako fruituen hartzea ia amaituta zegoen mahasti guztietan; ohi baino pixka bat lehenago eta osasun egoera onarekin.

Uztailaren bigarren hamarralditik aurrera, txakolinaren Arabako eremua beste bero bolada batean murgildu zen, eta, beraz, egoera, uztailaren amaieran, Arabako Errioxan

zegoenaren antzekoa zen. Mahastiak sufritu egin zuen beroaren eta lehortearen ondorioz (aleak oso gutxi garatu eta hazi ziren), baina fitopatologiari dagokionez egoera onean zegoen.

Aiaraldean, Arabako txakolinaren eremuak, uztailaren amaierako eta abuztuaren lehen egunetako bero iraunkorrak eta ur gabeziak (zirimiri eta euririk gabeko ekaitzen bat baino ez) alearen zikloaren garapena eta hazkundera moteltzen jarraitzen zuten, eta abuztuaren 10a baino lehen oraindik ez zen kolore aldaketa iritsi, ezta barietaterik goiztiarrenentzat ere. Txakolin mahastiak osasun egoera oso onean zeuden, baina lehortearen inguruko ziurgabetasuna oso handia zen.

Abuztuaren erdialdetik erregistraturiko tenperatura freskoagoak, prezipitazio txikiekin batera, nahikoa izan ziren mahastiaren zikloa bizkortzeko, eta irailaren hasieran aleek beren tamaina normala lortu ahal izan zuten. Egun horietarako, mahastiak osasun egoera oso onean jarraitzen zuen; tamaina Erdiko mahats mordoak zituen, ez oso ugariak eta mahats solteekin. Horri esker, hostoa ia osorik mantendu ahal izan zen, lurzoru hareatsuko kokatutako mahastietan izan ezik. Fase fenologikoari dagokionez, heltzea behar bezala zihoan, eta bat zetorren azken urteotan gertatutakoaren arabera ohikotzat jo daitezkeen datekin.

Iraila hilabete ona izan zen heltzeari dagokionez, euria egin baitzuen eta gaueko tenperaturak moderatuak izan baitziren. Horri esker, barietate goiztiarrenak, riesling eta chardonnay, iraileko erdialdetik aurrera iritsi ziren ereingaraira, eta orduan hasi zen mahats bilketa Arabako txakolinaren eremuan. Hondarrabi zuria, inguruko barietate nagusia, astebete geroago biltzen hasi ziren. Mahats bilketa iraileko azken astean orokortu zen eta urriaren erdialdera arte luzatu zen. Mahatsaren osasun bikainari esker, bilketa luzatu egin zen.

Arabako Txakolinaren Kontseilu Arautzaileak aurki emango dituen kopuruen behin betiko datuak kontuan hartu gabe, uzta ona izango da azkenean, aurreikusten zena baino oparagoa. Esan daiteke 2021ekoa baino handiagoa izango dela, hura laburra izan baitzen; eta bolumenari dagokionez, 2020ko errekorretara hurbilduko da. Azkenik, upeltegian sartu den mahatsaren osasun bikainaren eta parametro enologiko egokien arabera, oso kalitate onekoa izango dela aurreikusten da.

Guardian, 2022ko urriaren 28an.

MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA